

Jostailuak



ULA IRURETAGOIENA

Seme-alaben logela oso bat dut plastikozko jostailuz beterik eta ez dakit zer egin, kontatu dit lagun batek. Zenbat diru eta zenbat plastiko zabor pilaturik; hau guztia beharrezkoa al zen?, gaineratuz. Gabonetako gehiegikeriak ekartzen duen gogoeta. Jostailu-opariak aukeraketa ez da edozein erabaki, balore, identitate eraikuntza eta heziketarako gailu boteretsuak baitira –arriku eta aukera, aldi berean–.

Zeinen garrantzitsuak diren irabazigaldu jolas-lehiaketaren ondoan, norberaren irabaztearekin batera taldeak irabazten duela jolas-araua txertatzen duten jostailuak. Zenbat ikuspegi eraldatzeko balioko lukeen lehiakortasun indibidualaren kontrako arau honek, interdependentziarako eta elkarbizitzaren ulermenerako gako baita.

Taldekidetasuna lantzeko leku izateaz gain, genero-rol ikerketa askoren hizpide izan dira jostailuak, eta lotura zuzena egiten da generoaren eta profesio-rolen artean. Eraikuntzara eta arkitekturara bideraturikoak, rol maskulinoarekin lotu ohi dira (!), profesioaren gaineko aurreiritzi segida emanez. Edozein jostailu-dendak antzetzten ditu genero rol kategoria hauek, XXI. mendean oraindik ere.

Arkitekto batek, sentsibilitate material eta estetikoaren heziketa espezifikoa gatik, jostailuen aukeraketan begirada propio bat gaineratu dezake. Egurrez eta piezez osaturiko jostailuak izango ditu gogokoan, eta kolore primarioetatik aldendu edo kolore gama aberatsa eskaintzen duenetara joko du. Pieza geometrikoek zeregin abstraktua eskaintzen diote jostailuari: jolas-araua librea da eta haurrak zehaztuko du –lehiakortasun maila txikituz–, kolore gama zabalak genero atxikipena albratzten du, irudimena bultzatzen du piezekin gauza asko egin daitezkeelako eta adin tarte zabalerako erakargarria da. Jostailu didaktikoen atalean aurkitzen dira.

Jostailu didaktikoa, baina, ez da iragarrietan agertuko, eta denok dakigu haurraren jostailu aukeraketan zenbateko indarra duen lagunek baloratu dezaketena izatea. Auzia ez da erraza kudeatzen. ●



Immunologoen zalantzan jarri dute hirugarren dosia

ESTITXU EIZAGIRRE

Txertoaren hirugarren dosia abian da eta laugarren dosia ere ezarriko zaie arrisku taldekoei. Txertoek indartzen dituzten antigorputzak denborarekin galdu egiten dira, eta hori da errefortzu dosiak banatzen jarraitzeko argudioa. Antigorputzak bi modutara eskuratzen ditu gorputzak: gaixotasuna pasa duelako edo txerto bidez sartu zaizkiolako. Antigorputz neutralizatzaileek eragozten dute birusa zeluletara sartzea eta gorputzak infekzioa izatea, baina antigorputz horiek epe mugatuan izaten ditu gorputzak. Txertoaren hirugarren dosiarekin, hein batean, gorputzak gaitasun hori berreskuratzen du –hainbat ikerketen arabera, hirugarren dosia hartuta, antigorputzek Omicronen aurrean %60ko eraginkortasuna berreskuratzen dute–. Baina hilabete batzuk geroago, berriro ere antigorputz hauek galdu egiten dira.

IMMUNITATE ZELULARRAK IRAUTEN DU, ORDEA

Gorputzak gaitzei aurre egiteko erreminta bat dira antigorputzak, baina ez bakarrik. Immunitate zelularra ere badu gorputzak, T zelulen bidez batez ere eta honek memoria dauka: iraganean gaitza pasatu duten edo txertoa hartu duten gorputzetan, immunitate zelularra martxan jartzen da gaitzarekin berriz topo egiten denean. África González immunologian katedradunak azaldu duenez, “zure antigorputzen maila jaitsi egin bada gaixotu egin zaitezke, baina zure memoria immunitarioa martxan jartzen da (hiru eta bost egun artean behar ditu) eta berriz antigorputzak eta memoria zelulak sortzeari ekiten diozu; horrela, azkar buelta ematen zaion infekzio txiki bat pasatuko duzu. Baina txertorik hartu ez baduzu edo ez baduzu aurrez birusa pasatu, ez duzu memoria hori garatuta eta infekzio larriagoa izan dezakezu”. Immunologo hauen arabera, immunitate zelularra aktibatzeke ez da hirugarren txerto dosirik behar, eta herritar denei etengabe errefortzu dosiak jartzearen aurka daude. África Gonzálezek ohartarazi duenez, behin eta berriz dosiak jasotzeak “ez du zentzurik eta ez da gomendagarria. Sistema immunitarioa akitu daiteke”. Gómez Rialen arabera, “ikuspegi immunologikotik, zentzugabekeria da biztanleria osoarentzako estrategia orokor moduan”. Zaurgarrien kasuan zentzua izan lezakeela dio, baina komeniko litzatekeela txertoa Omicron aldaerarako egokitzea eta estuki ikertzea txertoen eraginkortasun galera, alferrikako dosiak ematea saihesteko. ●